



HAPPO



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

AURRERAPENA. 2011 URRIA
HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORRA

AURKIBIDEA

1. AGIRIAREN AURRERAKINAK ETA HELBURUA.....	2
2. AGIRIAREN EDUKINA ETA PROPOSAMENEN AZALPENA	4
3. IZAPIDEA	16
4. AURRERAPENA OSATZEN DUTEN AGIRIAK	18
5. HIZKUNTZARI BURUZKO OHARRA.....	21

1. AGIRIAREN AURRERAKINAK ETA HELBURUA

A.- ARRASATEKO HIRI ANTOLAMENDUAREN EGITAMU OROKORRA ETA JASANDAKO ALDAKETAK

Gaur egun Udalerrian indarrean dagoen plan orokorra “Arrasateko Hiri Antolamenduaren Egitamu Orokorra” da. Agiri hau 2003ko apirilaren 8an egindako batzarraldian onartu zuen behin betikoz Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak.

Ondoren, agiri horri 6 Aldaketa Puntual onartu zaizkio, hala nola:

- **1go Aldaketa Puntuala:** Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak 2005eko abuztuaren 2an egindako batzarraldian behin betikoz onartu zuen.
- **2. Aldaketa Puntuala:** Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak 2006ko urriaren 3an egindako batzarraldian behin betikoz onartu zuen.
- **3. Aldaketa Puntuala:** Udal Plenoak 2007ko otsailaren 26an egindako bilkuran behin betikoz onartu zuen.
- **4. Aldaketa Puntuala:** Udal Plenoak 2007ko urriaren 4an egindako bilkuran behin betikoz onartu zuen.
- **5. Aldaketa Puntuala:** Udal Plenoak 2008ko otsailaren 7an egindako bilkuran behin betikoz onartu zuen.
- **6. Aldaketa Puntuala:** Udal Plenoak 2010eko azaroaren 4an egindako bilkuran behin betikoz onartu zuen.

Esan beharra dago, 5. Aldaketa Puntuala onartu ondoren, Udalak Egitamu Orokorraren Testu Bateratua prestatu zuela (5. Aldaketaren osteko Testu Bateratua), eta Udal Plenoak 2008ko otsailaren 7an egindako bilkuran onartu zuela agiria.

B.- HIRI ANTOLAMENDUAREN EGITAMU OROKORRAREN BERRIKUSPENA

Indarrean dagoen Egitamu Orokorrak aurreikusten du agiriaren berrikuspena egingo dela, besteak beste, hura behin betikoz onartu eta zortzi urte igaro ondoren. Hirigintza Araudiaren 4. artikulua ezartzen du epe hori pasatakoan Udalak Egitamua berrikuspena egitea egoki den ala ez aztertuko duela.

Aurtengo apirilean aipaturiko Egitamu Orokorrak zortzi urte egin ditu indarrean (2003 – 2011). Udalak, dagokion azterketa egin ondoren, haren berrikuspena egokia dela iritzi dio. Zehazki, Egitamua hainbat zehaztapen mahai gainean jartzea egoki jo du, horien gain eztabaida sortu eta ondoren erabaki bat hartzeko, bere horretan laga ala beste antolamendu bat proposatzekoa.

Hori horrela, Udalak Egitamu Orokorraren Berrikuspen prozesua jarri du martxan eta prozesu horren barruan lehenengo agiria Aurrerapen hau da. Dena den, berrikuspen honek jarraitu behar duen izapidez beste atal baten jardungo dugu aurrerago.

Egitamuak berak dio berrikuspena dela irizpide berriak hartzea lurraldearen egitura orokor eta organikoarekiko eta lurzoruaen sailkapenarekiko, lurraldearena ez den beste eredu bat aukeratu delako edo daukaten antolamenduari buruz nabarmen eragiten duten izaera demografiko edo ekonomikoko gorabeherak agertu direlako.

Prozesu honetan plan berri bat egingo da. Arlo eta gune batzuentzat proposamen berriak egongo dira. Beste batzuetan indarrean dagoen planak jasotzen duena bere horretan bereganatuko du agiriak, dagokion gogoeta egin eta gero egokiena hala jarraitzea dela irizten ba dio Udalak. Hala eta guztiz ere, plan orokor berri bat izango da hau. Horregatik, nahiz eta berrikuspen prozesu baten egon (egun badagoelako Egitamu Orokor bat) agiri honen izenburua ez da izango “Berrikuspen agiria” baizik eta “Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra” – HAPO, hau onartutakoan hau izango baita indarrean egongo den bakarra.

Izenari dagokionean, lehen Egitamu Orokorra deitzen bazen ere, orain, Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen terminologiarekin bat eginez, Plan Orokorra (HAPO) deituko diogu.

2. AGIRIAREN EDUKINA ETA PROPOSAMENEN AZALPENA

Edukinari dagokionean, berrikuspen prozesu honen oinarriak bi izango dira.

Batetik, indarrean dagoen Egitamu Orokorrean aurreikusitako hirilurra eta lurzoru hiritargaria izango da goi muga. Hau da, gaur egun sailkatuta dagoen lurzoria mantendu edo, hala badagokio, gutxitu egingo da, baina ez zabaldu. Hiritarrezina den lurzoria ez da ikutuko. Horrela, egingo diren proposamenak izango dira lurzoru hiritargarian hirigintza garapena suposatzen dutenak, eta hirilurrean, barne erreformako operazioak.

Bestetik, Aurrerapen agirian ez ditugu proposamen zehatzak jasoko. Nahi dugu eztabaida sortzeko agiri bat aurkeztea, alternatiba desberdinak jasoko dituenak. Gaur egunean indarrean dagoen Egitamu Orokorra eztabaidarako “0” puntua izango da.

Lurzoru hiritarrezinari dagokionean, indarrean dagoen Egitamu Orokorrek jasotako araudiak urteak daramatza indarrean. Izan ere, honen aurretik indarrean zeuden Arau Subsidiarioen Aldaketa espedientea (lurzoru hiritarrezinari zegokionean) 1997. urtean onartu zen behin betikoz, eta gero Egitamu Orokorrek bereganatu egin zuen araudi hori. Beraz, 1997. urtetik aurrera da aplikagarria aipaturiko araudia. Izan ere, bere garaian onartu ziren LAZ edo DOT-en irizpideekin ere bat zetorren hura eta bere horretan mantendu da orain arte. Ordutik emaitza onak eman ditu gainera, eta tresna egokia dela ikusi da. Hala ere, onartu zenetik denbora luzea igaro denez, agian zuzenketa txiki batzuk egitea beharrezkoa izango da, besterik ez bada EAEko Nekazaritza eta Basoak Antolatzeko ALP edo PTS-aren zonifikazio bidea aztertuko da eta terminologia kontuetan bateratzea egiteko aprobetxatu daiteke.

A. ZENBAIT PROPOSAMEN

Hirilur eta lurzoru hiritargariari dagokionean, eztabaida gune edo puntu nagusienak esparru eta inguru jakin batzuen antolamenduak izango dira. Hauek, laburbilduz, hurrengoak dira:

1.- GESALIBAR

AE1.- Gesalibar esparruan 2011. urtean onartu da Hiri Antolamenduzko Plan Berezia. Bertan aurreikusten da esparruaren hiri berrantolaketa, kalitate handiagoko hirigintza parametroak lortzeko helburuarekin.

Hirigunea finkatu egiten da eta konfigurazio berria ematen zaio, eraikin berri bakan batzuk ahalbideratuz. Hau guztia helburu bikoitzarekin, batetik, biztanlegoa mantentzea eta bestetik, jadanik kolonizatuta dagoen lurzoria giza eta ingurumen ikuspegitik era iraunkor eta egokian okupatzea.

Multzoaren ingurune ezaugarriak zaindu eta hobetzea aurreikusten da. Ildo honetan lehenetsi egin da libre dagoen esparrua eta Ospitaleen arteko lurzoriaren transizioa gauzatzea, eta baita

Aramaio errekaostarekin daukan harremana berreskuratzea, haren ibilgua “hiri paisaiaren” oinarritzko elementu bezala barneratuz.

Hornikuntza eraikinak gehitu egiten dira.

Beste helburu bat etxebizitza eraikinen erabilera eta bizigarritasun baldintzak hobetzea izan da, eta baita beraien itxura eta funtzionaltasuna ere. Horretarako aurreikusi da antolaketa berria lurzatien sarbideentzako eta esparruaren espazio publiko osoa berriz hiritartzea.

Era berean arreta berezia eman zaio sarbide, ertz eta muga, oinezkoen eta motordunen mugikortasuna, espazio publiko osoa berriz hiritartzea eta zerbitzuak hobetzeari. Horiek guztiak udal ekimenekoak.

Aita Menni eta San Juan de Dios Ospitaleei dagokienean, hauek finkatu egiten dira. Hala ere, beraien barne antolamendurako aldaketak eta hobekuntzak baimenduko dira.

Auzogunetik barrena San Juan de Dios Ospitalerako sarrerari dagokionean, nahiz eta ez den posible ikusi hura desagertaraztea (Ospitaleko funtzionamenduak beharrezko duelako), hobekuntza batzuk aurreikusi dira auzoaren mesederako, hala nola, sarrera gunea egokitzea auzoko plazan trafikoak gutxiago eragin dezan.

2.- ATXABALPE, BARRUTIETA, AKISOALDE, BUSTINTZA

Indarrean dagoen Egitamu Orokorrek etxebizitza berrien garapen handia aurreikusten du inguru horretan: AE 7.- Atxabalpen trinkotasun handiko 224 etxebizitza; AE 9.- Barrutietan trinkotasun txikiko 51 etxebizitza; AE 11.- Akisoalden trinkotasun handiko 38 etxebizitza eta babes ofizialeko 58; AE 13.- Bustintzan trinkotasun txikiko 104 etxebizitza. Hazkuntza hori guztia zalantzan jarriko da berrikuspenean. Lau alternatiba edo aukera desberdinen bitartez eztabaida piztuko da. Aukerak honokoak dira:

0 Aukera.- Gaur egun indarrean dagoen Egitamu Orokorrek araututakoa, hau da, Barrutieta, Akisoalde, Bustintza eta Atxabalpe esparruetan etxebizitza-erabilera aurreikusten du, beti ere, 2/2006 Hirigintza eta Lurzoruaren Legeak zehaztutako baldintzekin.

A Aukera.- Gaur egun indarrean dagoen Egitamu Orokorrek araututakoaren ildotik baina aldaketa txiki batekin. Barrutieta, Akisoalde eta Bustintza esparruetan etxebizitza-erabilera aurreikusten du, beti ere, 2/2006 Hirigintza eta Lurzoruaren Legeak zehaztutako baldintzekin. Atxabalpe esparruan, aldiz, zehaztu gabeko hornikuntza erabilera aurreikusten du aukera honek.

B Aukera.- Eraldatu gabeko lurzoruaren erabilera murriztea. Horretarako, Barrutieta eta Bustintza eremuak desklasifikatu eta landa lurrera itzuliko dira. Akisoalde, ordea, etxebizitza-erabilerara bideratuko da, beti ere, 2/2006 Hirigintza eta Lurzoruaren Legeak zehaztutako baldintzak betez. Bestalde, Atxabalpe esparruan hornikuntza erabilera aurreikusten du.

C Aukera.- Eraldatu edo eta artifizializatu gabeko lurzoria errespetatzea. Horretarako, Barrutieta, Akisoalde eta Bustintza esparruak desklasifikatu eta landa lurrera itzuliko dira,

artifizializatu gabeko lurrak okupatzea ekidinez. Bestalde, Atxabalpe esparrua zehaztu gabeko hornikuntzarako aurreikusten du (ospitaleen handitzeak gauzatzeko, edo beste batzutarako...).

3.- GARAGARTZA

AE 12.- Garagartza esparruan Hiri Antolamenduzko Plan Bereziaren onarpena izapidetzen ari da Udala momentu honetan. Plan Berezi honen ildo edo helburu nagusiak honakoak dira:

Garagartza auzoko nekazal hirigunea antolatzea, etxe bakan berri batzuk eraikitzea ahalbideratuz ere

Auzogunearen erdialdea finkatzea, oinezkoen erabilera gailenduz, eta gaur egungo eraikinen fatxadak mantenduz, hauek osatzen baitute erreferentziako espazio hori. Eraikin nagusiei atxekitutako gorputzak antolatzea.

Auzoko biztanlegoa mantentzea eta jadanik kolonizatuta dagoen lurzorua giza eta ingurumen ikuspegitik era iraunkor eta egokian okupatzea.

Titulartasun publikoko hornikuntzen eskaintza indartzea. Besteak beste, kirolgune txiki bat antolatzea.

Lehendik dauden etxebizitza erabilera eta landa erabilera, hauekin bateragarriak diren jarduera ekonomikoko erabilera batzuekin (merkataritza eta beste batzuk) uztartzea.

Biztanlegoaren gehikuntza endogenoa jaso ahal izateko hirigintza mekanismoak jartzea.

Auzora heltzeko dauden oinezkoen eta motordunen sarbideak hobetzea eta auzoko esparru guztiak elkar lotzeko iraganbide egokiak egitea.

Monterron-Gesalibar motorgabekoen ibilbidea auzoan zehar jarraitzea eta bertan adarkatzea.

Teknologia berrien ezarpena eta lurzoruaren erabilera berriak, inguruari balorea ematen dioten elementuekin uztartzea.

4.- GARAIA

AE 18.-Garaia esparrua parke teknologikorako gune bezala egituratuta dago gaur egungo planeamenduan. Lurzoru hiritargarria izanik Plan Partziala onartuta dauka jadanik. Antolamenduaren helburuak honakoak dira:

Berrikuntza teknologikoa sustatuko duen nazioarte mailako puntako gune berezia eratzea, unibertsitateak eta enpresetako I + G unitateak egunero kontaktuan jarritz.

Hirigintza eta paisaiagintza alorretan eredugarri bihurtu daitekeen kalitatezko esparrua bultzatzea.

Udalerriaren hiri egiturarekin era egokian bateratu eta hura osatzea.

Monterron-Gesalibar motorgabekoen ibilbideari jarraipena ematea, Ibarreta esparruraino.

Garaia, Mendibarren eta Gautxori esparruak Uribarri etorbidearekin lotuko dituen biribilgunea gauzatzea.

Ohartarazten da esparruan lurzoru kutsatua egon daitekeela.

Plan Partzialak zehaztutakoa jaso da Aurrerapen agiri honetan.

5.- MENDIBARREN-GAUTXORI

Inguru honetan eraberritze prozesua eraman behar da aurrera. Besteak beste, honakoa jarriko da mahai gainean, ea Unibertsitatearen garapenerako esparrua (Gautxori) nahikoa den ala ez, eta AMAT-eko fundizio zaharra (Mendibarren) hortik desagertzeko bide juridikoa (ez berehala gauzatzekoa, noski) jada zabaldu behar den ala ez.

AE 22.- Mendibarren eta AE 23.- Gautxori esparruen antolamendu zehatza arautzen duen Plan Berezia onartuta dago jadanik (bi esparruentzako Plan Berezi bakarra), nahiz eta haren zehaztapenak ez diren oraindik garatu. Plan honek, laburbilduz, honako aurreikuspenak jasotzen ditu:

Mondragon Unibertsitatea hazi ahal izateko lurzorua gordestea.

Fagor Ederlan, S. Coop. enpresaren industri eraikina finkatzea, baliogabeko hainbat gorputz ezegokiren eraispenaren kaltetan gabe.

Hainbat baserri finkatzea ere bai.

Ingurugiro ikuspuntutik birsorkuntza egitea, Aramaio ibaiaren ibaiertzak era ekologikoan berreskuratu eta Arrasateko erdigunerako egokiago diren erabilerak ezarri.

Goialdetik datorren erreka azaleratzea.

Ohartarazten da esparruan kutsatutako lurzorua egon daitekeela.

Hasieran esan bezala, goian aipaturiko antolamendua mahai gainean jartzen da eztabaidarako. Azken emaitza gaur egun aurrikusitakoa izan daiteke, edo zati batean bai eta bestean ez, edo eta beste aukera desberdinen bat ere jaso daiteke.

6.- MEATZERREKA-UGALDE

Esparru hauek industri jardueratarako izendatuta daude gaur egun indarrean dagoen Egitamu Orokorrean, baina ez dute inolako garapenik izan (ezta planeamendu ikuspegitik ere). Indarrean dagoen Egitamuaeren proposamena egokia den ala mugatu egin beharko den (saiklatutako lurzorua gutxituz) izan daiteke eztabaidarako gaia.

Esparru hauetan erabilera nagusia da industria arrunt jarduera, hau da, onartzen du pabiloi txikiak egin eta hainbat enpresa desberdin bertan kokatzea.

Beste helburu batzuk dira, erreka era ekologikoan azaleratu eta berbideratzea.

Baita bertako bidea berrantolatzea, besteekiko lotura barne.

CIVASA zenaren eraikina antolamenduz kanpo utzi du Egitamuak eta ohartarazten du AE 37.- Meazterreka esparruan kutsatutako lurzorua egon daitekeela.

Aurrerapen agiri honetan jaso da egungo Egitamu Orokorrean jasotakoa, baina esan bezala, beste aukera batzuk ere egon daitezke.

7.- URUBURU-GRANDENAPE

“2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoak” ez ditu onartzen trinkotasun edo dentsitate txikiko guneak. Indarrean dagoen Egitamu Orokorrak trinkotasun txikiko etxeak aurreikusten ditu AE 25.- Uruburu esparruan. Hori horrela, antolamendua aldatu egin beharko da.

Kontuan izan behar da inguru hori gatazkatsua dela (antolatu gabeko txabolak daude – txabolismoa-, lur kutsatuak egon daitezke bertan...). Artifizializatuta dauden lurzoru bezala hartu daiteke esparru hori.

Urubururako proposamen berria aurkezten da: trinkotasun handiko etxebizitzak aurreikustea bertan, benetako garapen iraunkorra uztartuko duena (giza, ekonomi eta ingurumen iraunkortasunaren oreka bermatzen duena).

Horrela, etxebizitzaren %75a babes publikokoa (%55 BOE + %20 salneurri mugatukoa) izango litzateke, eta gainerako %25a libre.

Uribarriko elizaurrea eta Udalara doan errepidea lotzen dituen oinezkoen bidezka berreskuratu egingo litzateke, eta Uribarri auzoaren ostean dagoen lurzoruaren ingurumen kalitatea hobetu egingo litzateke gaur egungo egoerarekin alderatuz.

Azken finean, antolamendu berri honekin dentsitate handiagoa eman nahi zaio AE 25.- Uruburu esparruari, Lurzoruaren Legeak agintzen duena betez, bai trinkotasunari dagokionean eta baita babes publikoko etxebizitzaren gutxieneko kopuruari dagokionean ere.

Eraikinen kokapena eta antolamendua bera, malda eta eguzkiari egokituz aurreikusiko litzateke.

Ohartarazi behar da kutsatua dagoen lurzorua egon daitekeela esparruan.

8.- OTALORA LIZENTZIATUA PASEALEKUA

Otalora Lizentziatuarentzako proposamen berritzailea jaso dugu Aurrerapen agirian. Ekonomikoki kostu handikoa, baina teknikoki posible den proposamena. Otalora Lizentziatua kalean ibaia azaleratzen da, arbolapetan hasi eta Amaia antzokiaren pareraino, eta horrez gain oinezkoentzako pasealeku biurtzen da zati hori. Horretarako ibilgailuentzako lurrazpiko pasabide bat egiten da bide zati horri dagokionean, bertan aparkalekuak ere aurreikusten direlarik.

Proposamen ausarta, eztabaida piztuko duena, ziurrenik.

9.- SAN VIATOR TXIKI

AE 41.- San Viator Txiki esparruan indarrean dagoen araudiak irakaskuntza eraikinak finkatu egiten ditu (ordezkatzeko aukera emanez, hala behar izan ezker), eta horrez gain, eliza handitzeko aukera ematen du.

Eztabaidan jarri nahi da elizaren handitze proposamen hori, parkeagan eragina baitauka.

10.- AZERI

Polmetasa enpresarenak izan ziren instalakuntzetan etxebizitzak egitea aurreikusten du indarrean dagoen Egitamu Orokorrak. Helburuak dira udalerriaren etxebizitza eremuari hegoaldeetik amaiera emango dion gunea behar bezala antolatu eta osatzea. Industria erabilerak narriatu dituen lurzoruak eraberritzea bilatzen da.

Baita ere San Andres auzoak duen aparkaleku gabeziari aurre egiteko, gainean erabilera publikoa izango duen lurrazpiko aparkaleku osagarria eraikitzea.

Ohartarazten da esparruan kutsatutako lurzorua egon daitekeela.

11.- INTXAUSTI – SAN JOSEPE HARROBIA

AE 58.- San Josepe Harrobia esparruan, harrobiaren ustiapena amaitu ostean azalera handi bat gelditu da hiritartzeko. Azalera honen handitasuna eta harrobiak inguruagan duen eragina dela-eta, Udalak Ideien Lehiaketa bat antolatu zuen bertan gauzatu litezkeen jarduketak planteatu zitezten. Ideien lehiaketatik hainbat ondorio atera ziren, besteak beste, erabilera anitzak kokatu beharko liratekeela bertan, ingurua irisgarria izan beharko litzakeela, herriarekin uztartu beharra, komunikazioak jorratu beharra, inguruan ere ezinbestez esku hartu beharra, ibaiaren inguruan berreskurapen eskuharmena egiteko aukera... Lehiaketa haren ostean ez da antolamendu zehatz bat finkatu Intxausti – San Josepe Harrobia ingururako, ideia orokor baten norabidea baizik. Alternatibak nahi beste izan daitezke eta gaia zehazten joan beharko gara.

Aurrerapen agiri honetan jasotzen den antolamendua ez da behin-betikoa; ez da eztabaidatu beharrekoa, alegia. Eremu honetan, ideia orokorraren inguruan hausnarketa eskatzen da: erabilera anitzak sustatzeko beharra, harrobia eta Intxausti eremuaren arteko lotura, oinezkoen mugikortasuna eta errepidearen arteko harremana... Hausnarketaren abiapuntu, hortaz.

12.- ALDAIAZPI

AE 77.- Aldaiazpi bizitoki esparru finkatua da. Bertan etxebizitzak orain dela berrogei urte baino gehiago eraiki ziren. Auzo honen hiritartze eta irisgarritasun baldintzak nahiko kaskarrak dira eta, epe luzera edo ertainera, berreskuratze operazioa egin beharra ikusten da.

Nahi dena da eztabaida mahai gainean jarri. Dena den, eskuharmen hau hobeto aztertu beharreko operazioa izango da ezinbestean, eta denbora egongo da.

Aurrerapen agirian jasotako proposamenean Aldaiazpi kaleak Gipuzkoa etorbidearekin bat egiten du. Horrela, etxebizitzaren irisgarritasun baldintzak hobetu eta Gipuzkoa etorbidearen kale-profila samurtuko litzateke. Honek, besteak beste, oinezkoentzako etorbidearen erabilera atsegina bihurtuko luke, eta hiri erdia eta goiko auzoen arteko harremana errazten lagunduko luke.

Dena den, luzera begirako proposamena da, gune horretarako etorkizunean lurzoru publikoaren ikuspegitik antolamendua hobetzeko asmoz.

13.- ETXE TXIKIAK

Esparru honetan bi helburu argi daude. Batetik, industri iraultza garaiko adibide den langile etxe-multzoa ahalik eta gehien finkatu eta gordetzea, bizi kalitatea hobetearren eranskinak, era mugatuan eta multzoaren berezko itxura aldatu gabe, eraikitzea ahalbideratuz; eta bestetik, Zerrajera ingurua eta hiri-erdiaren arteko komunikazioa hobetzea. Horretarako, Aurrerapen agiri honetan etxebizitza kopuru txikienari eragingo dion errepide-lotura egitea proposatu da, Nafarroa etorbidea eta Maalako biribilgunea era zuzenean lotuko dituen.

14.- ZERRAJERA 2 - ZALDUSPE

AE 80.-Zerrajera 2 eta AE 86.- Zalduspe esparruen planeamendu xehekatua onartuta dago jadanik.

AE 80.- Zerrajera 2-ren kasuan babes publikoko etxebizitzak aurreikusten dira bertan, hauetako batzuk alokairuan. Beste helburu batzuk dira Etxaluzetik Zalduspera irekiko den kale berria eraikitzea, eta “Trenbide Zaharra” motorgabekoen ibilbidea luzatzea. Oraindik 325 etxebizitza falta dira eraikitzeko. “Aprendiz-eskola” delako eraikina mantendu edo ordezkatzeko aukera aurreikusten da, eta ordezkatzuz gero eraikina lerrokadura berrietara egokitu beharko da.

AE 86.- Zalduspe esparruan duela gutxi onartu da Hiri Antolamenduzko Plan Berezia. Plan honek guztiz narriaturik dagoen Zalduspeko industri gunea berrantolatzea aurreikusten du. Erabilerak ere gaur egun daukan kokapenarekin (erdialdetik gertu) bateragarri izango dira. Horrez gain, Nafarroa etorbidearekiko sarrera-irteerak murriztasunez egokituko dira, eta aurreko esparruan bezala Etxaluzetik Zalduspera irekiko den kale berria eraiki eta “Trenbide Zaharra” motorgabekoen ibilbidea luzatzea aurreikusi du.

Ohartarazten da esparruan kutsatutako lurzorua egon daitekeela.

Aurrerapen agiriak gaur egun indarrean dauden antolamenduak jaso ditu.

15.- LEGARRE

Indarrean dagoen Egitamu Orokorrak etxebizitzetarako antolamendua aurreikusten du AE 82.- Legarre esparruan. Gainera Hiri Antolamenduzko Plan Berezia ere onartuta dago.

Antolamendu honen helburuak dira erdigunean etxebizitza gun e berri bat antolatzea, Deba ibaiaren ibilgua era ekologikoan berreskuratzea, gun e osoa ibai berreskuratuari aurpegia eman ez egituratzea eta bertako oinezko zein motordunen igarobideak antolatzea. Esparruan 80 etxebizitza aurreikusi dira.

Aurrerapen agiri honek jasotzen du Plan Berezi horretan aurreikusitako antolamendua.

16.- AGERRE

AE 89.- Agerre esparruan, lurzoru hiritargarria izanik, onartuta dago jadanik Plan Partziala, hau da, antolamendu xehekatua zehaztuta dauka.

Etxebizitzetara zuzendutako esparrua da. Bertan aurreikusten dira bi tipologia: bai trinkotasun handikoak eta bai babes publikokoak. 80 etxebizitza libreak dira eta 20-k salneurri mugatua daukate.

Horrez gain, dauden txabola guztiak antolamenduz kanpo geratu dira. Ohartarazten da esparruan kutsatutako lurzorua egon daitekeela.

Bideriari buruz, aurreikusten dira bi bide, bat nagusia, Santamaina eta Santa Teresa kaleak lotzen dituen a, eta bestea bigarren mailakoa, aurreko bidea eta Makatzena kalea lotzen dituen a.

Antolamenduak aurreikusten du 400 m²ko sistema orokorra, esparru zabal eta berdeguneetara zuzendua. Baita ere, giza hornikuntza lurzatia eta zuzkidurazko bizitokietarako lurzatia.

Aurrerapen agiri honek jasotzen du Plan Partzial horretan aurreikusitako antolamendua.

17.- SANTAMAINA – SANTA TERESA

Bizitoki esparru finkatuak dira hauek. Bertan etxebizitzak orain dela berrogei urte baino gehiago eraiki ziren. Auzo hauen hiritartze eta irisgarritasun baldintzak nahiko kaskarrak dira eta, epe luzera edo ertainera, berreskuratze operazioak egin beharra ikusten da. Nahi dena da eztabaida mahai gainean jarri. Dena den, eskuharmen hau hobeto aztertu beharreko operazioa izango da ezinbestean, eta denbora egongo da.

Oinezkoen erabilera sustatzeko, eta auzoaren kalitatea hobetzeko azterketa sakona egitea beharrezko ikusten da. Aurrerapen honetan jasotako proposamenaren helburua ez da antolamendu zehatza aurkeztea, azterketa sakon bat gauzatzeko dagoen beharra azaleraztea baizik. Proposamenean, besteak beste, hiri erdia auzoko kale ezberdinekin zuzenean komunikatuko duen gunea antolatzea aurreikusten da. Espazio hau Aldaiko parkearen kota berberean hasi eta maila desberdinetan antolatuta egongo litzateke. Horrela, Santamaina

ingurua bai Aldai inguruko bidegorriarekin, bai parkearekin eta bai Gipuzkoa etorbidearekin ere erraz komunikaturik egongo litzateke. Bestetik, gune honek auzoko hornikuntza eta aisialdirako gune garrantzitsuenak jasoko lituzke; bai eta auzoan irisgarritasun-baldintzak bermatzeko beharrezkoak liratekeen igogailu eta elementuak ere.

Luzera begira bada ere, antolamenduaren ordezeko aukeraren bat zehaztea interesgarria izango da.

Beste alternatiba da Santamaina eta Santa Teresa esparruetako eraikinak finkatu eta birgaitze operazioak bultzatzea. Agian eraikin bat edo beste kentzea planteatu daiteke, beti ere espazio publikoa zabaldu eta irisgarritasun baldintzak hobetzeko helburuarekin.

18.- KASKONATEGI

AE 103.- Kaskonategi esparruan merkatal zentru handi bat dago eta indarrean dagoen Egitamu Orokorrak bertan gehiago eraikitzeak aukera ematen du.

Eztabaidarako gunea da esparru honen antolamendua, Eroski merkatal gunearen garapena eta geltoki intermodala eraikitzearen aukera uztartu behar diren, ala ez, alegia. Hausnartu behar da geltoki hau garatzea merezi duen, luzera begira zer ekar dezakeen, eta garatzekotan zein neurritan, edo beste edozein aukera den egokiagoa. Baita ere merkatal zentruaren hazkundera nora arte izan behar duen. Bata eta bestearen arteko lotura zenbateraino den ezinbestekoa, edo sos publikoekin bakarrik finantziatu daitezkeen geltoki intermodala eta azpiegituren aldaketa.

Aurrerapen agiri honek geltoki intermodala eraikitzea proposatu du. Hau da, garraiobide mota guztiak uztartuko dituen gunea antolatzea. Eroski kokatzen den eraikuntza zabaldu eta ondorioz aparkaleku kopurua handituz gero, hauek disuasio-aparkaleku moduan erabili ahal izango lirateke. Horrela, autoa bertan utzi eta intermodalak eskainiko lituzkeen baliabideak aprobetxatzeko aukera sortuko litzateke: ibilbide luzeko autobusa, tranbia edo eskualdeko autobusa, hiribusa edo bizikleta, eta baita garraio diskrezionalaren topagune gisa ere.

Eztabaida pizteko proposamena hau ere.

19.- ZABALETA

AE 104.- Zabaleta esparruan jarduera ekonomiko erabilerak aurreikusten ditu gaur egungo planeamenduak. Hiri Antolamenduzko Plan Berezia orain gutxi onartuta dauka. Esan bezala, jarduera ekonomikoak garatzeko esparru berri bat da.

Zabaleta baserria ezin izango da eraitsi eta ohartarazten da esparruan lurzoru kutsatua egon daitekeela.

Aurrerapen agiri honek jaso du Plan Berezi horretan aurreikusitako antolamendua.

20.- BEDOÑA

Aurrerapen agiri honetan jaso da indarrean dagoen Egitamu Orokorrean jasotako antolamendua, hau da, landa etxebizitzaz osatutako gunea. Helburuak dira Bedoña auzoko nekazal hirigunea antolatzea, etxe bakan batzuk eraikitzea ahalbideratuz. Pilotalekua eta aparkalekua eraiki ahal izateko gosdespenak ere aurreikusten dira.

Auzoaren antolamendua eta hirigintza garapenaren nondik norakoak zehaztea jartzen da mahai gainean. Gainontzeko nekazal auzoen ildo berdina jarraitu behar al duen ala ez eztabaidatuz.

21.- KANPANZARKO HARROBIA

Harrobia ustiatzen duen enpresak aurkeztu berri duen lurrazpiko meatzaritza proiektuaren inguruan dagokion eztabaida abian jartzea izango da Aurrerapen agiri honen helburua.

Enpresa horrek, hain zuzen, Udalari aurkeztu dio harrobi ustiapena lurrazpian edo meatzaritza eran egiteko proposamena, hau da, kareharria lurrazpitik ateratzeko proposamena. Enpresaren esanetan lan egiteko modu honek sahiesten ditu paisaiari eragindako kalteak eta lurzoruaren gainaldea suntsitzea. Era berean, gutxitu egiten ditu zarata eta hauts igorpenak.

Kanpanzar harrobiak honoko faktoreak hartu ditu aintzat:

- Inguruan ezaugarri geomekaniko onak dauzka, eta horiei esker posible da sostengurik behar ez duten hutsune handiak diseinatzea.
- Aukeraturiko metodoak lurrazpiko urei ahalik eta gutxien eragin beharko die.
- Nahi da ustiatutako gunek gero beste erabilera batera zuzentzea.

Ganbera eta zutabeen metodoa jo da egokiena. Hutsune edo ganberak maila desberdinak izango dituzte eta bi motatako zutabeak egongo dira, bertikalak, maila bakoitzean, eta horizontalak, ateratze mailak banantzen dituztenak.

Ganberak izan daitezke 20 metroko zabalera eta 25 metroko altuerakoak.

Eztabaidaren beste aldean jarri beharko genituzke iraunkortasunaren ikuspegitik hau ote den etorkizuna eta, batez ere, hau ote den kokapen egokiena, Udalaitz mendiaren barrenean.

Esan bezala, mahai gainean jartzen da planeamenduan aukera hau jaso ala ez.

Aipaturiko atal bakoitzak bere antolamendu planoak dauka. Aurrerapen honetan, zenbait proposamen jasotzen dituzten planoak dira horiek.

B. PLANO OROKORREI BURUZKO AZALPEN BATZUK

Horiez gain, plano orokorrak ere badaude Aurrerapen agirian, eta beste zehaztapan batzuk jasotzen dira hauetan:

ANTOLAMENDU OROKORRA

Plano honetan jaso dugu hirilur eta lurzoru hiritargarri osoaren antolamendua, orokorrean ikusi ahal izateko. Jasotzen dena da leku batzuetan gaur egungo egoera eta beste batzuetan proposamenetako bat. Dena den, proposamen hau ez da inondik inora loteslea. Plano honen irakurketa egin behar da proposamenak egiten dituzten beste planoekin batera.

LURZORU HIRITARREZINA

Atal honen hasieran aipatu dugun bezala, lurzoru hiritarrezinari dagokionean egungo Egitamu Orokorrean aurreikusitako zonabanatzea jaso da. Honek urteak daramatza indarrean eta emaitza onak eman ditu. Zerbait azpimarratzearren, esan lurzoru hiritargarri bezala sailkatuta zegoen aintzinako "Ekutio" esparruari zegokion azalera osoa gaur egun hiritarrezin bezala aurreikusi dela, Egitamu Orokorrari egin zitzaion 6. Aldaketa Puntualean desklasifikatu egin baitzen.

SISTEMA OROKORRAK

Plano honetan bateratuta jaso dira sistema osokor guztiak: errepideak, trenbidea eta tranbia, bidegorriak, berdeguneak, hornikuntzak...

Tranbiari dagokionean, Eusko Jaurlaritzak orain dela urte batzuk proiektu bat idazten hasi zen (Deba Goieneko tranbia proiektua). Hemen jaso den ibilbidea da proiektu horri Udalak Arrasaterako egin zion aldaketa proposamena. Dena den, esan beharra dago proiektua bera amaitu gabe dagoela oraindik eta guztia nahiko geldu.

Abiadura Handiko Trenari dagokionean, Udalez gainerako administrazioen proiektua izanik, hemen jaso dena izan da proiektu horren trazatua.

Errepide sarean islatu dira Eibar-Gasteiz autopista, GI-627 (Deba bailarako sahisbidea), GI-633 (Beasain-Durango), GI-2620 (Aramaiora doan bidea, tunel berria barne), GI-3551 (kanpanzarrea doan bidea), GI-3554 (Bedoñara doan bidea), GI-3552 (Udalara doan bidea), eta Udalerriko kale nagusiak.

Foru Aldundiak Udalarik Urribarritik Takoloraino doan zeharbidearen titularitatea eskualdatuko dio laster. Hortaz errepide zena kale bihurtuko da, horrek egokitzapena eskatuko duelarik (galtzadaren zabalera txikitu, abiadura murrizteko mekanismoak jarri, aparkalekuak sortu, espaloi erosoak sortu...).

Bestalde, aipatzekoa da Foru Aldundiak Bedoñara dijoan bidea zabaltzeko proiektu bat badaukala eta hori garatu egingo dela.

Bidegorri sarea ere jaso da. Sare hori poliki-poliki osatzen doa, baina hala ere, oraindik zati batzuk egitea falta da.

Mendi ibilbideak ere jaso dira. Lurzoru hiritarrezinean dauden ibilbideak dira, aisialdirako egokiak, batzuk ondo markatuta daude eta beste batzuk, aldiz, ez. Ibilbide hauen titularitate osoa publikoa da.

Berdeguneei dagokienean, gaur egungo Egitamuan dauden berdeguneak jaso dira: Monterron, Santa Barbara, Aldaiko parkea, Hídalgobaso, Arruena eta Pagobakarpe. Esan beharra dago horietatik bat, Hídalgobaso alegia, lurzoru hiritarrezinean kokatuta dagoela.

Sistema orokorren planoan hornikuntza guztiak jaso dira, kirol, irakaskuntza, administrazio, kultur etabar hornikuntza. Eztabaida honen ondorio gisa Plan Orokorrak aukeratuko duen egitura ereduari egokitu beharko zaizkio hornikuntzak ere, gainontzeko aldagaiak bezala.

ZAINDU BEHARREKO ONDAREA

Hemen jaso dira batetik, jadanik Eusko Jaurlaritzak babesteko izendatuta dauzkan ondasun guztiak eta bestetik, udal babesa jaso duten beste ondasun batzuk. Azken hauek, gehienak, Eusko Jaurlaritzak proposaturikoak izan dira (udal babesa izan zezaten proposaturikoak).

ARKEOLOGIA GUNE ETA ELEMENTUAK

Hemen jaso dira Eusko Jaurlaritzak izendatuta dauzkan arkeologia guneak eta ustez arkeologi guneak izan daitezkeen izendapena dutenak ere. Jaso dira aztarnategi batzuk: Lezetxiki ingurua, Labeko koba ingurua eta Murugain. Baita ere hainbat eliza, baserri eta haitzulo.

NATUR ONDAREA

Hemen jaso dira natur ikuspuntutik interesa daukaten gune eta elementuak. Gune bezala babesten dira, paisaia ikuspuntutik, Udalaiz ingurua, Murugain, Hídalgobaso eta Etxezarreta. Horiez gain Udalerrian dauden 102 zuhaitzi ere ematen zaie babesa. Galarrako kobazuloa ere interesekeko elementu bezala izendatu da.

KUTSATUTA EGON DAITEZKEEN LURZORUEN INBENTARIOA

Plano honek jasotzen du bere horretan Eusko Jaurlaritzak egindako “Lurzoruaren polutzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruaren inbentarioa”. Garrantzia dauka hemen jasotakoak. Izan ere ingurumen araudiak betebeharrak batzuk ezartzen die kutsatuta dauden lurzoruei, esate baterako hauek eskualdatzeko jabeak adierazi egin behar dio erosleari kutsatuta daudela, edo bertan hainbat eskuharmen egitea nahi baldin bada kutsadura hori kendu egin beharko da lehendabizi. Kutsadura kentzeko lan hauek kostu desberdina izan dezakete, zenbateraino kutsatuta dauden arabera.

3. IZAPIDEA

Lurzorua eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 104. artikulua esaten du hirigintza-planen zehaztapenak berrikusteko plan mota berbera erabiliko dela eta zehaztapen horiek onartzeko jarraitu beharreko prozedura bera erabiliko dela.

Kasu honetan, Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra izapidetu eta onartzeko prozedura Lurzorua eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 90. eta 91. artikuluetan jasotzen da.

Laburbilduz, prozedura honokoa da:

- 1.- **Aurrerapena** egindakoan, Udalak jende aurrean jarriko du, gutxienez bi hilabetez.
- 2.- Jendaurreko erakustaldiaren emaitzak aztertuta, Udalak Plan Orokorra idazteko oinarritzko **irizpide eta helburuak** zehaztuko ditu. Onartzen diren irizpide eta helburuak ingurumen-eraginaren baterako ebaluazioari buruzko txostenarekin bat ez datozenean, berariaz arrazoitu beharko da hartutako erabakia.
- 3.- Behin agiria prestatuta, Udalak **hasiera baten onartuko du** eta jende aurrean jarriko du hilabeteko epean. Sektore eskumenak dituzten bestelako administrazioei ere jakinaraziko zaie akordioa.
- 4.- Udalak, jendaurreko erakustaldiaren emaitzak ikusita, **behin behinekoz onartuko du** agiria, dagozkion aldaketekin. Aldaketa horiek egiturazko antolamenduaren funtsa aldatzen badute, Udalak hasierako onespina eman beharko dio agiriari eta jendaurreko izapidea irekiko du berriz, behin behinekoz onartu aurretik.
- 5.-Udalak agiria **Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari** igorriko dio. Batzorde honen **txostena** loteslea izango da lurralde antolamenduko tresnei, eta udalaz gainera proiektuei dagokienez.

Batzordeak hiru hilabetez txostenik ematen ez badu Udalak izapidea jarraitu ahal izango du. Txostena epe kanpo ematen bada, ez da derrigorrezkoa izango hura kontuan hartzea agiria behin betikoz onartzeko orduan.
- 6.- Dagozkion aldaketak egin ostean, Udalak **behin betikoz onartuko du** Plan Orokorra. Behin betiko onarpena partziala edo zatikakoa izan daiteke, baldin eta Lurralde Antolamendurako Batzordearen txosteneko eragozpenek eremu edo zehaztapen jakin batzuei eragiten badiete eta horiek oztopo ez badira Planaren gainerako zehaztapenak koherentziaz aplikatzeko.
- 7.-Plan Orokorra indarrean sartzeko onarpen akordioa eta Hirigintza Araudia GAO-n argitaratu beharko dira.

Lurzorua eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak zehaztutako izapidea da goian adierazi dena. Dena den, horrez gain prozedura horretan txertatu behar dira Planeamenduaren Aholku Kontseiluaren parte hartzea (Udal Ordenantzaz arautua) eta Ingurugiro legediak eskatutako izapideak.

Horrela ingurugiro izapideei dagokienean:

- 1.-Udalak, Aurrerapen agiria idatzi aurretik, Eusko Jaurlaritzari “erreferentzi dokumentua” eman dezan eskatuko dio.
- 2.-Aurrerapena idaztearekin batera, Udalak “Ingurumen Iraunkortasunaren Txostena” idatziko du (Eusko Jaurlaritzak bidalitako “erreferentzi dokumentu” horri egokituz).
- 3.- Udalak Aurrerapena eta “Ingurumen Iraunkortasun Txostena” igorriko dizkio Eusko Jaurlaritzari, eta “Aurretiko txostena” eman dezan eskatuko dio.
- 4.-Eusko Jaurlaritzak “Aurretiko txostena” emango du, gehienez bi hilabeteko epean.
- 5.- Udalak Plan Orokorra behin behinekoz onartu eta gero, Udalak eskatuko dio Eusko Jaurlaritzari “Behin betiko txostena” eman dezan.
- 6.- Eusko Jaurlaritzak gehienez bi hilabetetan eman beharko du “Behin betiko txostena”, eta epe horretan ez badu txostenik ematen, Udalak prozedurarekin aurrera jarraitu ahal izango du.
- 7.- Plan Orokorra behin betikoz onartu ondoren, onarpen akordioa eta Hirigintza Araudiaz gain, “Ingurumen Eraginaren Deklarazioa” ere argitaratu beharko da.

Eta Planeamenduaren Aholku Kontseiluaren parte hartzeari dagokionean:

- 1.- Aurrerapen agiria jendaurrean jartzen denean, Aholku Kontseiluak agiriari buruzko txostena emango du.
- 2.-Plan Orokorrak hasierako onarpena jaso ostean ere, Aholku Kontseiluak txostena emango du.
- 3.- Udalak behin betiko onarpena ematerakoan Aholku Kontseiluak egindako proposamenak ez baditu aintzat hartzen, zergatik onartu ez diren adierazi beharko du.

4. AURRERAPENA OSATZEN DUTEN AGIRIAK

Plan Orokorraren Aurrerapena izapidetzeko hiru agiri prestatu ditugu:

- AURRERAPEN AGIRIA
- AZTERLAN SOZIO-EKONOMIKOA
- INGURUMEN IRAUNKORTASUNAREN TXOSTENA

A) AURRERAPEN AGIRIA

Hirigintza dokumentua da hau. Bertan jasotzen dira proposatu diren edo eztabaidatu behar diren antolamenduak. Udal Zerbitzu Teknikoek idatzi dute agiri hau.

Esku artean daukagun Aurrerapen hau osatzen da ondorengoez:

- MEMORIA
- PLANOAK
 - PLANO OROKORRAK
 - 1. ANTOLAMENDUA
 - 2. LURZORU HIRITARREZINA ZONABANATZEA
 - 3. SISTEMA OROKORRAK
 - 4. ZAINDU BEHARREKO ONDAREA
 - 5. ARKEOLOGIA GUNE ETA ELEMENTUAK
 - 6. NATUR ONDAREA
 - LURZORUAREN POLUTZAILE IZAN DAITEZKEEN JARDUERAK DITUZTEN LURZORUEN INBENTARIOA
 - ZENBAIT PROPOSAMEN
 - 1. GESALIBAR
 - 2. ATXABALPE, BARRUTIETA, AKISOALDE, BUSTINTZA
 - 3. GARAGARTZA
 - 4. GARAIA
 - 5. MENDIBARREN – GAUTXORI

- 6. MEATZERREKA – UGALDE
- 7. URUBURU – GRANDENAPE
- 8. OTALORA LIZENTZIATUA PASEALEKUA
- 9. SAN VIATOR TXIKI
- 10. AZERI
- 11. INTXAUSTI – SAN JOSEPE HARROBIA
- 12. ALDAIAZPI
- 13. ETXE TXIKIAK
- 14. ZERRAJERA 2 – ZALDUSPE
- 15. LEGARRE
- 16. AGERRE
- 17. SANTAMAINA – SANTA TERESA
- 18. KASKONATEGI
- 19. ZABALETA
- 20. BEDOÑA
- 21. KANPANZAR

Proposamen hauen irudikatze grafikoa lantzeko TELLERIA-ZUECO ARQUITECTOS, SLP enpresaren laguntza jaso du Udalak.

B) AZTERLAN SOZIO-EKONOMIKOA

Azterlan sozio-ekonomikoa IKERTALDE enpresak prestatu du.

Agiri honek Arrasateko garapen eremu nagusiak aztertzen ditu, eboluzio ikuspuntu batetik: populazioa, etxebizitza, garapen ekonomikoa, kultura, kirolak eta euskara, gizarte ongizatea eta bizi kalitatea, lurzorua eta mugikortasuna. Azterketa honen emaitza gisa, tokiko eskuhartze eremu nagusien etorkizuneko agertokiak marraztuko dira.

Azterlanak hiru atal nagusi ditu:

1.- DIAGNOSIRAKO ELEMENTUAK. Bereizitako zortzi eremuri heltzen dio, eboluzio ikuspegitik eta lurralde konparaketatik:

- Demografia eta populazioaren garapena
- Etxebizitza

- Garapen ekonomikoa
- Lan-merkatua
- Hezkuntza, kultura eta euskara
- Gizarte-azterketa eta bizi-ongizatea
- Lurzorua
- Mugikortasuna

2. ETORKIZUNeko AGERTOKIAK. Arrasateko proiektio demografikoaren analisiari ekiten dio, 2010-2020 denboraldiarena hain zuzen. Proiektio honek, Eustatek bere proiektio demografikorako planteatu dituen hipotesien arabera, datozen urteetan Arrasatek izango duen garapena estimatzea ahalbidetu du.

2020rako estimatzen den agertoki demografikotik abiatuz, eta datozen urteetan EAERako egiten diren aurreikuspenak direla-eta, aipatutako eremuetan Arrasatek izan dezakeen egoeraren azterketatxo bat egin da, egungo eta etorkizuneko egoerak konparatzeko asmoz. Azterketa honen garapenerako oinarria, adierazle multzo bat sortzea izan da, bertan eremu bakoitzeko erreferentzia nagusienak jasotzen baitira.

3. ONDORIOAK. Azken atal honetan, laburbilduz, eta erregistratzen den joera oinarri izanda, egindako diagnosi azterketatik ateratako ondorio nagusienak jasotzen dira.

C) INGURUMEN IRAUNKORTASUNAREN TXOSTENA

Ingurumen Iraunkortasun Txosten hau EKOLUR Ingurumen Aholkularitza, SLL enpresak idatzi du.

EAE-ko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 41. artikulua eta ingurumenaren eraginaren baterako ebaluaketa egiteko prozedura arautzen duen uztailearen 22ko 183/2003 dekretuaren 3. artikulua ezartzen dutenaren arabera, Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrak eta horren berrikuspenak, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratua egiteko prozedura bete behar dute onartuak izan daitezten.

Era berean, Plan edo Programa jakinek ingurumenean duten eraginaren azterketari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legea (estatu mailako oinarritzko legea) jarri zen indarrean. Lege horren helburuak bat datoz aurreko legeriaren helburuekin.

Honako agiri honetan, besteak beste, Plan Orokorraren eraginpean dagoen esparruaren ingurumen arloko diagnosa, analisia eta balorazioa egin da. Aintzat hartutako hautabideei buruzko ingurumen azterketa ere egin du agiriak, eta inpaktuen identifikazio eta balorazioa.

Izapidea atalean aipatu den bezala, Udalak Aurrerapenarekin batera “Ingurumen Iraunkortasunaren Txosten” hau igorriko dio Eusko Jaurlaritzako ingurumen organuari, honek Ingurumen-eraginari buruzko “Aurretiko txostena” presta dezan.



5. HIZKUNTZARI BURUZKO OHARRA

HAPO-ren Aurrerapen agiri hau eta “Ingurumen Iraunkortasunaren Txostena” euskaraz idatzi dira jatorrian.

Azterlan sozio-ekonomikoa, aldiz, gazteleraz.

Jatorrizko testua eta egingo diren itzulpenen artean kontraesanik sortu ezker, jatorrizko testuan adierazitakoak izango du lehentasuna.

Arrasaten, 2011ko urrian

JUAN ANTONIO URDANGARIN ALUSTIZA
Bide, Ubide eta Portuetako Injinerua

AMAIA IRIONDO ALBERDI
Arkitektoa

ANE ZABALA ZUBIAURRE
Zuzenbidean Lizentziatua

